AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

SEGURTASUN SAILA

3709

EBAZPENA, 2026ko abuztuaren 6koa, Segurtasuneko sailburuordearena, Ertzaintzaren izendapen askeko eta merezimendu espezifiko eta orokorren lehiaketako sistemen bidez lanpostuak betetzeko prozeduran emandako 2026ko uztailaren 14ko Ebazpena Gurenet atarian noiz jarriko den iragartzeko dena.

Ertzaintzako karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko deialdia onartu eta argitara ematen duen Segurtasuneko sailburuordearen 2025eko azaroaren 11ko Ebazpenaren hirugarren ebazpen-zatian ezarritakoarekin bat etorriz, eta Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 318/2024 Dekretuak ematen dituen eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Aditzera ematea 2026ko uztailaren 14an Segurtasun Saileko Gurenet atarian Segurtasuneko sailburuordearen egun bereko Ebazpena jarri dela. Ebazpen horren bidez, lanpostuak betetzeko sistema merezimendu-lehiaketa duten lanpostuak esleitu ziren, lanpostuak behin betiko betetzeko 2025eko azaroaren 11ko Ebazpenaren bidez deitutako prozeduran (C344-C345-C346-C347-C348).

Vitoria-Gasteiz, 2026ko abuztuaren 6a.

Segurtasuneko sailburuordea,
RICARDO ITUARTE AZPIAZU.